

Negutegiaren epeltasuna

Juan Ramon MAKUSO

Ez da erraza neguaren hotza kitatzea hezurretatik, baina Ixiar Rozasen *Negutegian* epeldu egin naiz. Beharbada kaleko hotza hezurretaraino sartuta neukan eta egun batzuk negutegian igarota, arima epeldu egin zait. Ez da eroso izan. Omar, Emi eta Dederekin egun batzuk igarota dena den errazagoa suertatu zait. Ni ere beraien negutegian murgildu naiz eta barrutik negutegia bestelakoa izan da. Ze urrun dauden besteak, nigandik ezberdinak direnak! Baina era berean, ni izateko aukera bermatzen didate. Eta Ixiar Rozasek hau guztia eskaintzen du bere negutegitik. Eskaintza, proposamena, berria da Ixiarren literaturan. Atzean geratu dira lasartearraren beste lanak, eta orain agertu zaigu Ixiar idazlea. Beharbada *Negutegia* oso barneratua dauka, bere oraina da:

“Ezer gutxi nekien nire iraganaz, nire arbasoetaz, eta zer esaten zidan niri etorkizunak, behin behineko bizitza baten erdian?”

Eleberraren protagonistaren ahotan, Ixiarren ahotsa ikusten dut. Eta egia da, bizitza, egia bezala, behin behinekoa da. Zer bestela, nola pentsatuko du bere bizitzan lekua, bizilekua, behin behinekoa denean?. Omarrek eta beste bi lagunek, ez dute etorkizunik, ez eta beharrik, nahiz eta paradoxa batek batzen dituen: enkontruak. Gertatuko dena. Eta gertakizun hori gorpuzteko bidaia, aitzaki moduan, aurkezten digu idazleak. Bidaia oroimenaren itsasoan murgilduta, narratiba poetiko baten bitartez. Bai, lirismo handia erakusten digu Ixiarrek bere eleberrian, beharbada oso ausarta izanda. Agian asko arriskatu du Ixiarrek, baina ariketa literarioan arriskua ezinbestekoa da. Arriskatu du, kondairak, protagonistenak, puzzle moduko batean osatzen joaten direlako, aitzaki asko, metafora anitz erabiliz. Margo

bateko pintzelada solte asko agertzen dira protagonisten bizitzetan, errerealismoak presentzia asko dauka, gehiegi sakondu gabe —lurrikara dugu horren adibidetako bat—:

“Lurrikara gehiegi zeneramatzala esan nizun, lurrikararen kantua izango zela niretzat handik aurrera.”

Baina era berean zer nahi dugu protagonisten bizitza deserrotu horretatik? Deserrotua bizi denak, ez du bere errerealitatea azaltzeko azalpen ugari behar. Behar bada horregatik Ixiarrek ez du sakontzen protagonisten bizitzetan, eta horregatik irakurlea gogoarekin geratzen da, jakin mina sortuz, bizitza horietan zer gertatu den.

“Edgar sukaldean dago, baso bat ur edaten. Aurrez aurre geratu gara, lehenengo kafean bezala. Eskutik heldu dit. Bere ohean sartu gara. Istanbulen egon nintzenetik, Edgar ez den beste batekin maitasuna egitera noan lehenengo aldia da. Berak ere, azken finean, Edgar du izena. Begiak aldatu dizkiote, ezpainak, sorbaldak, gerria, izterrak, azalaren berotasuna. Baina, finean, orain ere Edgarrekin nago.”

Arestian aipatu dugu bidaia dela batasuna protagonisten artean. Eta Ixiarrek hiri askotatik eramaten gaitu. Baita ere lurralde ezberdineko hizkuntzak agertzen dira eleberrian zehar, beste metafora bat, gure mundurako.

Eta amaitzeko, irakurlearentzat oso pizgarria suertatuko dena. Eleberriak puskak eta irudiak ditu. Etorkinak badu lekuaren, zatiaren, lekukotasuna. Horregatik bada hiru protagonistentzat batasun bat: adiskidetasuna.

Eta *Megutegiak* niretzat espazio eta denbora bat eraikitzen du, eta hau litzateke narratiba honen hatsa poetikoa.